



MUSIKA JAUREGIA  
EUSKALDUNA  
BILBAO

# Aurrera Fest!

*Itxaropen-iturri  
portador de esperanza*

## ANTONIO OYARZABAL PIANO-JOLEAREN DEBUTA BAKARLARI GISA EUSKALDUNAN, EMAKUME IZENA DUEN KONTZERTUAREKIN

**Abuztuaren 2an emango den “La Musa Olvidada” kontzertuak, emakume piano-joleen piezez osatutako errepertorioa jasoko du. Urtebete ikertzen eman ondoren Antonio Oyarzabalek itzalpetik aterako dituen musikako benetako harribitxiak dira, generoari egingo zaion ondo baino hobeto merezitako omenaldian.**

*Bilbon, 2020ko uztailaren 28an*

Antonio Oyarzabal piano-jole bakarlari gisa egingo duen lehen kontzertua aurkeztu du gaur goizean Euskalduna Jauregian, “La Musa Olvidada”, abuztuaren 2an emango duen errezitaldia (sarrera 19,5 euro, kudeaketa gastuak barne). Oyarzabalek aho zabalik utziko gaitu emakume konposatzaileek idatzitako pianorako piezen errepertorioa entzuteko aukera bakar honetan. Oyarzabalek urtebeteko ikerketaren ondoren itzaletatik ateratzen dituen “arreta handiz hautatutako musikako benetako harribitxiak” dira. Izan ere, errezitaldiko egitaraua egiteko emakume konposatzaileek testuinguru desberdinetan pianorako eta ganbera-musikarako idatzitako errepertorioaren irakurketa lan sakona egin behar izan du.



EUSKALDUNA  
BILBAO

MUSIKA JAUREGIA CONFERENCE CENTRE EVENTS

Kontaktua / Contacto  
636 878 248  
prentsa@euskalduna.eus

Antonio Oyarzabalek Euskalduna Jauregian bakarleri gisa egingo duen debuta une garrantzitsua da beretzat; izan ere, orkestretan eta ganbera-taldeetan askotan aritu bada ere, inoiz ez da bakarka jardun. “Ilusioz betea eta hunkigarria da nire piano proiektu profesionala nire herrian aurkeztea, nire jendearen eta laguneren aurrean, eta dugun egoerarengatik hainbat gauza bertan behera uzten ari diren garai honetan”. Piano-joleak dioenez, bere oroimena oso erlazionatuta dago EOSekin eta areto hauetatik igaro diren piano-jotzaile handiekin, “Izan ere, beti amestu dut areto hauetan jotzearekin”.

“La Musa Olvidada”, bere lan guztiak bezala, proiektu liluragarriak bilatzeko etengabeko gogotik sortu zen, ohikoak ez diren errepertorioen bilaketatik. Piano-jolearen hitzetan, “Nire nahia, ikus-entzuleek obra bitxiak entzutea eta gogoeta egitea edo euren buruari horrelako kontzertu gehiago zergatik ez diren egiten galdetzea da”.

## **Piano-jole moldakorra, bakarleri eta ganberako musika kontzertuen artean**

Musikenen Marta Zabaletarekin eta Miguel Borgesekin ikasi ondoren, Antonio Oyarzabalek piano bakarleri masterra egiten jarraitu zuen Londresko Guildhall School of Music and Drama eskolan, Caroline Palmerrekin. Bertan, geroago, Artist Diploma titulu garrantzitsua ere lortu zuen. Oyarzabalek, Pascal Rogé, Anne Quéffélec, Denis Pascal, Émile Naoumoff, Jerome Rose, Guigla Katsarava, Ralph Gothoni, Bernard d’Ascoli, Josep Colom eta Luis Fernando Perezen masterclasseak ere jaso ditu.

Ganbera musikari gisa, iaz egin zuen debuta Londresko Barbican Hall aretoan (2019ko maiatzean), Klimt Quintetekin batera. Trio Aitherios taldearekin ere jo du, St Mary Perivaleko (Londres) kontzertu zikloaren barruan. Antonio A&M Sextuor taldeko kide izan zen, eta horrekin errezitaldiak eman zituen Donostiako Kutxa Aretoan edo 2010eko Donostiako Musika Hamabostaldian. Gaur egun, Trisquel Arts Ensembleko kide sortzailea da, eta Londresen, Asturiasen, Andaluzian eta Euskadin eman ditu errezitaldiak. Duela gutxi, Cadizko Manuel de Falla Jaialdia irekitzeko aukera izan du.

Oyarzabalek Mozarten *Kegelstatt* trioa jo du Andrew Marriner klarinetista ospetsuarekin, London Symphony Orkestrako klarinete bakarleriarekin. Era berean, *Allegri*

*Quartet* taldeko kideekin batera ere jo du. Orkestra esparruan, London Philharmonic Orchestra-Foyle Future Firsts Programme 2016/2017 izenekoaren piano-jole izendatu zuten.

Bakarlari gisa, Oyarzabalek kontzertuak eta errezitaldiak eman ditu Espainian eta atzerrian. Nabarmentzekoak dira, Santanderreko Botin Fundazioa, Toroko 'Las Edades del Hombre' 2016 Jaialdia, Pirineos Classic Jaialdia, Aiarako Jaialdia, Paxosko Nazioarteko Jaialdia (Grezia). Londresen hauek nabarmentzen dira: St Martin in the Fields, St James Piccadilly, The Forge Venue, St John Baptist Church, St Clement Danes, St Lawrence Jewry, Wesley Chapel, St John's Waterloo St James Paddington, St Pancras Church eta St George Bloomsbury. Londrestik kanpo, Antoniok Birminghamen, Newporten (Gales), Brightonen (Sussex), Watforden eta Grange Park Festivalen (Hertfordshire), Stratford upon Avonen (Warwickshire), Peterboroughn (Cambridgeshire), Hastingsen (East Sussex) eta Bury St Edmundsen jo du. Zenbait orkestrarekin batera, Antoniok hainbat aretotan jo du: Vienako Musikverein, Madrilgo Auditorio Nazionalea, Municheko Opera, Lisboako Fundação Gulbekian, Grafeneggeko Jaialdia, Barbican Hall eta Londresko Royal Festival Hall, eta baita Royal Albert Halleko PROMS 2014 izenekoetan ere. Duela gutxi, Antoniok Bilboko Arriaga Antzokian egin zuen debuta, Musika Frantsesaren Zikloaren barruan.

Oyarzabalek Guildhall School Trust izenekoak emandako beka jaso zuen, Entzuleen Sari Berezia eta Finalista Saria jaso zituen Campilloseko Nazioarteko Piano Lehiaketan (2015), Eastbourne Young Musician Competition 2013 lehiaketan laugarren saria jaso zuen, eta bigarren saria Île de France Nazioarteko lehiaketan, Parisen 2009an. *The Inner child (Barruko umea)* lehen CDa grabatu du Orpheus Classical diskoetxearekin. CDa modu ofizialean aurkeztu du Madrilen, Euskadin eta Londresen (St Martin in the Fields). *The Inner Child* diskoari Urrezko Melomano saria eman zioten musika klasikoko Melomano aldizkarian. J. Martínez Villar (ARSIS, 2019) euskal konpositorearen bigarren CDak sari bera jaso du orain dela gutxi.

**#KreoEnTiKultura:** 5 euroko beherapena sarrera bakoitzean,

<https://ticket.kutxabank.es/kreoenti/public/janto/#>

webgunearen bitartez erosten bada. Aplikagarri soilik



MUSIKA JAUREGIA  
EUSKALDUNA  
BILBAO

# Aurrera Fest!

*Itxaropen-iturri  
portador de esperanza*

uztailean, abuztuan eta irailean egingo diren tokiko ikuskizunetarako.



EUSKALDUNA  
BILBAO

MUSIKA JAUREGIA CONFERENCE CENTRE EVENTS

Kontaktua / Contacto  
636 878 248  
[prentsa@euskalduna.eus](mailto:prentsa@euskalduna.eus)